

EKITALDIAK-EVENTOS / SIDRA-SAGARDOA / SIDRERÍAS-SAGARDOATEGIAK

2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 03/01/2014 · 10:31 · Editar

2 Comentarios



Urtarrilaren 15an azalduko ditu **Sagardoaren Lurraldeak** 2013ko uztaren ezaugarriak **txotx denboraldi berriari** hasiera emateko ekitaldian eta **Madonna**-rekin egindako mundu biran ezagutara eman den **Kalakan** musika taldea izango da aurtengo protagonista.

Andoni Gartzia, Astigarragako Alkateak, **Sagardoetxea Museoa**n eguerdiko 12:00etan ospatuko den aurkezpen ekitaldian uztia berria aurkeztuko du, eta sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarrien berri emango du, sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenekin batera.

Urtero bezala, hogeita batgarren aldi honetan ere, ekitaldiko unerik garrantzitsuenak **txotx irekierakoa** izango da. Astigarragako **Alorrenea sagardotegian** "**Gure Sagardo Berria**" oihu egingo du Kalakan taldeak lehen kupela irekitzean, eta honekin batera, sagardo denboraldi berria irekiko da.

Aldez aurretik, Sagardoetxea Museoko sagastian **sagarrondo** berri bat landatuko du. Ekitaldi sinboliko honekin, naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi dira, urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen baitigu.

EGITARAUA

11:30-12:00: Komunikabideei akreditazioak emango zaizkie Sagardoetxean.

12:00: Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dira 2013ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

13:00: Kalakan taldeak sagarrondo bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

13:45: Astigarragako Alorrenea sagardotegian "**Gure Sagardo Berria**" oihu eginda lehen kupela irekiko da eta honekin batera, txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

Egun guztian zehar. Astigarragako tabernek barrikoteak eskeiniko dizkiete bezeroei uztia berridun sagardoarekin.

PROTAGONISTA IZAN ZIREN...

- 1994, Andoni EGAÑA bertsolaria.
- 1995, Jose Mari BAKERO futbolaria.
- 1996, Javier CLEMENTE entrenatzailea.
- 1997, Julian RETEGI pilotaria.
- 1998, Miguel INDURAIN birrindularia.
- 1999, Juan Mari ARZAK sukaldaria.
- 2000, Pedro Miguel ETXENIKE fisikaria.
- 2001, Joane SOMARRIBA birrindularia.
- 2002, Martín FIZ lasterkaria.
- 2003, Abraham OLANO birrindularia.
- 2004, Periko, Mikel y Xabi ALONSO.
- 2005, Ainhoa ARTETA sopranoa.
- 2006, Jose Luis KORTA arraunlaria.
- 2007, Juan MARTINEZ DE IRUJO pilotaria.
- 2008, Andoni LUIS ADURIZ sukaldaria.
- 2009, Aimar OLAIZOLA pilotaria.
- 2010, REAL SOCIEDAD DE FUTBOL futbol taldea.
- 2011, Karlos ARGUIÑANO sukaldaria.
- 2012, Julian IANTZI aurkezlea.
- 2013, LA OREJA DE VAN GOGH taldea.

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardo
Sidrerías-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Txotx boladaren irekiera
Saizar sagardotegian.



Gozatua Hernanin:
sagardogintza, sarobeak
eta trikuharriak.



Martin Berasategik
inauguratu zuen txotx
bolada Urbil Merkatal
Gunean.



Sagardoaren Hiztegia:
Izurriak eta animalia
onuragarriak.

Tags: Alorrenea, Apertura, astigarraga, irekiera, Kalakan, Madonna, Sagardo Berriaren Eguna, sagardotegiak, Sidrerias, temporada del txotx, txotx, txotx bolada

Anterior post

RESERVA de sidrerías online. Sagardotegien
ERRESERBAK online.

Siguiente post

RETROSPECTIVA 2013. Principales
acontecimientos del territorio de la sidra. 2013
URTEARI ATZERA BEGIRA: Sagardoaren
munduko jarduera nagusiak.

omentarios

KALAKAN ABRIRÁ MAÑANA LA NUEVA TEMPORADA DE TXOTX | NON SERVIAM says:
M j, Y

[...] [Fuente: Sagardoaren
Lurraldea] [...]

Responder



J.M DE AMASSORRARAYN says:
M j, Y

Preparada Astigarraga para recibir hoy a un donostiarra ?

Responder

Tu comentario / Zure komentarioa

Registrado como Sagardoaren Lurraldea. Desconectar »

Enviar



XIII. Sagar Uztako sagar
tarta irabazlea.

Comentarios recientes

J.M de Amassorrayn en **2014KO
TXOTX IREKIERA. KALAKAN
taldeak irekiko du txotx bolada
berria.**

Kalakan abrirá mañana la nueva

**temporada de txotx | NON
SERVIAM en 2014KO TXOTX
IREKIERA. KALAKAN taldeak
irekiko du txotx bolada berria.**

**Sagardoaren Lurraldea en XIV.
Kirikoketa Besta Arizkunen,
azaroaren 2an.**

**agandamin en XIV. Kirikoketa
Besta Arizkunen, azaroaren 2an.**

**Aritz en Donostiako XXVIII.
Sagardo Eguna, irailaren 7an.**